

Javier Marías idazlearen uste ustela

Juan SAN MARTIN

El Diario Vasco egunkariak *El Correo* talderekin batean astero eskaintzen duen *El Semanal* (766. alean), 2000. urteko malatzaren 14-20koan, Javier Marías jaunak argitaratu duen "Dolches" deritzan artikuluak benetan txunditurik utzi nau bertan agertzen dituen oinarririk gabeko uste, hain ustelak, edukaziorik gabe astakeriz beterik azaldu duena irakurtzean.

Hasieran zioenez: Institut d'Estudis Catalans, Real Academia Galega eta Euskaltzaindikoek: "*pésimos lingüistas y no tener ni noción del funcionamiento de las lenguas y hablas*". Nonbait ez daki, holako gai batean besteol eritziak ematera sartu baino lehen, hizkuntzalari izateaz gainera beste hiruron hizkuntzak ezagutu beharrezkoak direla eta, hori ez ezik, alpatzen dituen erakundeon arautegiak ere, nonki, ezagutu beharrezkoak direla. Horrela jakingo zuen erakundeon zereginetan behartasunak zertan diren.

Horregatik galde niezaioke: lehenik, zergatik ez ditu begiratu besteon arautegiak zertan oinarritzen diren? Euskaltzaindiarena, adibidez, 1920. urtean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek onartua zen, Eta hor daude bere egitekoak Iker eta Jagon sailek orokorki zertan oinarritzen diren.

Euskaltzain ohorezko genituen Ramón Menéndez Pidal eta Antonio Tovarrek ez zuten holakorik esango, zeren hauek beti izan baitzituzten Euskaltzaindiarekin eta euskaltzainkideekin harreman estu bezain onak. Gainera, Antonio Tovar zenari hamalka aldiz entzuna nioen, munduko sei hizkuntzalari hobereenen artean jartzekoa zela

gure Koldo Mitxelena zena. Eta Javier Marías-ek gutxien dakiena da, Euskaltzaindiko en artean badirela zenbait Mitxelenaren ikasle izanak eta Unibertsitateetan irakasle direlak.

Baina, ezta ere ez daki aipatu dudan 1920ko arautegi hura Espainiako Ministerio de Educación y Ciencias delakoak onartu zuenik. Ba, ikus eta irakur beza DECRETO 573/1976, de 26 de febrero, Euskaltzaindia bere arautegiaz onartu zueneko eta horri errege Juan Carlos jaunak egin zion onespenezko sarrerakoan honako hitz hauekin argi eta garbi zioena: *“La Academia viene laborando ininter-rumpidamente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos españoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello, nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables palabras de su egregio abuelo”*.

Gainera, Ministerio de Educación y Ciencias berberak liburu apain eta berezi bat argitaratu zuen, *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia* izenburuz, 1976. urtean, non datozen erregeren sarrerako hitzak eta erakundearen arautegia. Ondotik Euskaltzaindiaren historia labur bat gazteleraz eta euskaraz jarria, argazkiz eta irudiz ongi horniturik.

Ez dut gogoko inor lotsagabetzekiro epaltzea, baina une hone-tan Javier Marías delakoak ez du besterik merezi. Eta lotsagabe horren “Dolches” artikulua erantzun beharrezkoa iruditu zait. Zeren hizkuntzalari izateaz gainera euskara eta hemen bertako historia ere ezagutu beharrezkoak baltira. Ez baita alperrik gure hizkuntza Espai-nia eta Frantziako mintzalarik zaharrena.

Akademiek ez dutela normarik eman behar? Baina, Real Acade-mia de la Lengua-k ere ez ote du hori egiten? Testu zaharrak ikusi besterik ez du zer nolako aldakuntzak nabari diren Real Acemiaren eraginez. Azken mendeotan ortografiaz eman dituen arauak ikusi besterik ez dugu, zer nolako aldakuntzak behartu dituen jakiteko. Adibidez, hemeretzigarren mendera arte edozein hitzetan **y** greke-razkoa erabiltzetik ez ote zuen ba **i** latinerara pasatu? Lehendik gaur arte, bere hiztegi-tan holako adibideak maiztasunez aurki ditzakegu.

Guri erakutsi behar ote digu euskarazko grafiak nola behar

duen? Jakin beza Azkoltia eta Barakaldo k-rekin erabili ala ez Euskaltzaindiari dagokiola. Eta lanak nola burutzen ditugun jakiteko, gure ikerketen adierazgarri hor ditugu *Onomasticon Vasconiae* sailleko hainbeste liburu eta herrien eskariz eman diren agiriak *Euskera* agerkarian azalduak, eta jatorrak nola behar duen, beti lekukotasunekin agertuz.

Euskal Herriko errepideetan jarri behar diren rotulazioak guk gure aburuz jarri beharrezkoak ditugu, zeren Javier Marías-en artikulua azkenaldean agertzen diren hitzak, nahiz Alemanian edo nahiz Italian, bertako hizkuntzetan irarriak daude. Legez hala behar delako, bai Espainiako Estatuaren aldetik eta bereziki Euskal Herriko Autonomi Elkargoetatik. Beraz, ez du eskubiderik, "*aducir como argumento la manera en que los vecinos de una población la llamen, es otro rasgo de asombrosa ignorancia*" esateko. Ez ote daki Espainiako hizkuntzarik zaharrena euskara dela? Ez ote du ezagutzen Euskaltzaindiaren arautegia? Egia esan, ezetz esango nuke.

Nik, eibartar bezala esan nezake gure herriaren izena, bertakoen eskariz Espainiako errege Alonso XI.ak 1346. urtean lehen herriska zena hiri sortzean *Villanueva de San Andrés* bezala izendatu zuela. Hala ere, bertakoentzat beti Eibar izan da, hiria sorerria baino lehenagotik ere, gutienez XII. mendetik hala zenez. Kanpoko erdal-dunek, ordea, jakin behar lukete beraiek agiri zaharretan: Heybar, Heivar, Ehibar, Eybar eta abar idatziz erabili dutela. Gaur bertan oraindik, Madriletik Eibar bezala idazten dute eta bertako gaztelazale batzuk ere bai. Beraz, bertakoa ezagutu gabe eta euskararik jakin gabe ezinezkoa da eritzi egokia eskaintzea. Hori da Javier Marías lelo horri ere gertatzen zaiona.

Bere artikulua horretan esaten dituen astakeria horiek aski ez direlarik gaineratzen du: "*ignorantes académicos al servicio no de la ciencia, sino de los políticos. De sus políticos locales, para mayor oprobio*". Alderantziz, hori berori esan genezake guk, bai berari eta beste askori ere, zeren inperialista izateari oraindik ez baltiozte utzi eta beraien menpekotasunean hartu nahi gaituzte.

Politikaren ekintzan ez garela ari jakiteko, berriz diot, Euskaltzaindiaren arautegi irakurri baizik ez duela. Euskaltzaindia eritzi askotariko pertsoez osatzen da, baina guztion gainetik jartzen dugu erakundeari dagokion arautegia. Hortarako sortua baitzen.

Han eta hemen, asko dira *Hondarribia* izena onartzen ez dutenak ere, beren ustez *Fuenterrabia* jatorra delakoan. Ez dira ohartzen, edo ez dute ohartzerik nahi, antzinatik hemengo ahoskatu ezinez f idazten hasi zirenak gaskoinak izan zirela eta hortik aldatu zela gazte-lerara. Nafarroako errege Santxo Jakitunak 1180. urtean Donostiari eman zion foru berezi hartan Undarribia jartzen zuen eta Josefh Moret historiagileak *Anales del Reyno de Navarra* (1766) hartan, garai batean erresuma hortakoa zenez, Hodarribia zekarren. Baina baita ere Martin Hoyarزابalek 1717an argitara eman zuen *Liburu hau da Itxasoko nabigacioneoa* zeritzan hartan, itsasoz nondik nora ibili eta portuetako sarrerek nola hartu behar ziren jakiteko.

Hemengo politikarien zerbitzura guttiz ez gaudela jakiteko, adibide pertsonal bar jartzeko, esan nezake, nik neuk Eusko Jauriaritzako IVAP delakoari aditzera emana dudala autoel ikuspena eman behar zaien ITV - IAT bulegoetan, revisión hitzaren itzulpenez *ikuska-keta* jartzea gaizki dagoela, izatekotan ere *ikusket*a behar duela, baina alperrik.

Garai batean Koldo Mitxelena zenak eta gero Euskaltzaindia be- rak esana du: Orereta ez dela hiriaren izen zuzena Erreterria baizik. Lehena toki batena zen baina ez hiriarena. Erreterria bai, bertako seme ziren Xenpelar bertsolariak eta Luis Jauregi "Jautarkol" ida- zleak erabili zuten bezla. Eta gai hontaz bertako Udalean egin ge- nuen batzar batean azaldu genituen gure arrazoizko eritziak. Zine- gotzi guztiek onartu zuten, HB-koek ezik. Hauek berean jarraitzen dute setati, errepideetako rotuloel Rentería edo Erreterria borratu eta gainean Orereta jarriz.

Arabako *Billerle* eman genuen era jatortzat, zeren Legutiano auzo bat besterik ez zelako, baina hor ere ez ziguten jaramonik egin. Azken urteotan ahoskeraz erabili izan den *Abadiño* ere, agiri zaharren arabera osatu genuen txostenean egokiago iruditu zitzaigun *Abadia- no* era jatorragoa itzultzea, baina alperrik izan zen. Egia esan, Udal bakoitzak du bere azken hitza eta gure gomendioa ez zuten onartu.

Adibide horietatik ikus daiteke bertako politikari batzuk ez digu- tela jaramon askorik egiten. Gainera, Jauriaritzako kontseilari batek aspaldi izendatu zuen *Txingudi* erreserba, antzinako *Bidasoa* behar zuen leku berean. Ikus Euskaltzaindiaren Euskera agerkaria (1998- XLIII, 221-227. orrialdeetan).

Argi dago Euskaltzaindia erakunde bezala bertako politikarien esanetara balego ez zela horrelakorik gertatuko. Hala ere, ez dut uste Javier Marías idazleak hori ulertzerik nahiko duenik, zeren inor politizaturik egotekotan bera egon go baita.

Gainera, hiriburuen sarreretako errotulazioetan Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Iruña-Pamplona jartzearen aurka ez gaude, zeren erderazkoa aspalditik hain zabaldua denez gero bidallariak nahastu besterik ez genuke egingo. Baina Azkoltia eta Baracaldo k-rekin jartzeak ez dakar inolako nahasmendurik.